

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

### ■ Enpresa ingurunea: analisia

Gure enpresa internetako sarbidea edo telefono bat erabiltzeko aukera duten adin guztietako pertsonentzat zuzenduta dago. Zerbait erosi nahi duten baina horretarako denporarik ez duten haiek dira gure bezero potentzialak. Gure bezeroek internetaren inguruko trebetasun minimo batzuk izan behar dituzte, izan ere, gure app-a erabiltzeko beharrezkoak dira.




### ■ Lehiatzaileak aztertzea:

Gure lehiatzaile nagusiak Glovo edo Vinted bezalako internet bidezko enpresak dira. Enpresa hauek, gure antzeko lana egiten dute baina maila internazional batean. Desberdintasun nagusia guk komunitate txiki baten mailan lan egiten dugula eta ondorioz, gure produktu kantitatea askoz txikiagoa da. Edonola ere, multinazional hauek ez bezala, helburu nagusitzat lekuko dendei garatzen eta zabaltzen laguntzea da ahalik eta modu ekologikoenean.

### ■ Merkatuak ikertzea.

#### - Inkestaren esteka eta erantzunak.


Gure bezero posibleak nortzuk diren aztertzeko, gure enpresari buruzko inkesta bat sortu dugu eta Ondarroako institutuko ikasle zein irakasle guztiei bidali diegu. Guztira, 101 erantzun jaso ditugu, eta hauetatik gehiengoak 13 eta 18 urte inguru bazituzten ere, 11 eta 65 urte bitarteko beste pertsona batzuen erantzunak ere jaso ditugu.




**Erantzun hauetan oinarrituta, honako ondorioak lortu ditugu:**

Inkestatuena gehiengoek dendan erostea nahiago duten arren, online bidezko erosketak ere egiten dituzte, gehien bat, lehen eskuko produktuak erosiz; erropak, elektronika eta janaria.

Erosten ahal duzu app bitartez?




Denda ala online nahiago?



Gure lehiatzaile nagusienetatik Amazon, Wallapop eta Mil Anuncios dira ezagunenak, azkenengo biak 2. eskuko materialak saltzeko guneak izanik. Hala ere, lehenengo eskuko produktuak erosten dira gehien, Amazon edo Glovo app-etatik.


Zein erabiltzen duzu gehiago?



**Ondoren, herriko erosketen inguruko galderak egin dizkiegu inkestatuei.**


Gehiengo batek, %65,3-rek herriko produktuak sarritan erosten dutela adierazi dute, eta %33,7rek batzuetan. Erositako produktuak; janaria, eskolako materiala eta liburuak nabarmentzen dira. Haatik, portzentaia txiki batek, %1-ak, herrian inoiz ez duela kontsumitzen erantzun du.

Erosten al dituzu zure herriko produktuak?




Atal honetako azken galderan, eskualdeko produktuak gure App bidez erosiko al zuten galdetu diogu eta ondorioztatze gisa, emaitza positiboak izan ditugu, hain zuzen ere %81,2-rek baiezkoa bozkatu baitute.

Zure eskualdean "Lea-Artibain", bertoko produktuak App bidez edo online eskeiniko balira, "Amazonen" bezala, erabili eta erosiko al zenuke bertatik?



**Bigarren eskuko produktuetako ataleko erantzunak:**

Galdetegi honetan ikusten da inkestatuen erdiak bigarren eskuko produkturik ez dituztela erosten, beste erantzunen ia denak batzuetan erosten dituzte eta %6ak sarriitan erosten ditu.



Lea-Artibai amankomunitatean bigarren eskuko produktuak salerosteko app-a erabiliko zutela erantzun dute inkestatuek eta donaketak ere gehiengo handi batek egingo lituzke

